

Euskararen Nazioarteko Eguna²

Mikel ATXAGA

Hasieran hizkuntza bakarra zen. Hala uste zen. Babelen sortu omen zen hizkuntza desberdinen nahasmahasa, zeruraino igotzeko dorrea egiten ari ziren gizon-emakumeak zigortzeko. Hala sinesten zen.

Horren arabera, bakarra da Jainkoak gizakiari emandako hizkuntza. Beste guztiak gizakiaren harrokeriaren ondorio eta zigor dira. Ez da, beraz, harritzekoa bakoitzak bere hizkuntza Paradisuko hizkuntzatat nahi izatea. Hasieran, ebraiera zen Jainkoak emandako hizkuntza. Gero gerkeera eta latina. Azkenik, gaztelania bezalako hizkuntzak bilakatu ziren sakratu. Besterik gabe, hizkuntza ttikiak eta ofizialtasunik gabeak baztertu eta ezabatu egin behar ziren.

Orain ere hizkuntza batzuk besteak baino ederragozat, balio-tsuagozat, nagusiagozat, aurreratuagozat eta beharrezkoagozat jotzen dira, ttikien kontrako erdeinua eta gutxiespena sortzeraino. Badira mundu osorako hizkuntza bakar bat bakarrik nahiko luketenak ere.

Gure ustez, ordea, hizkuntza adimenaren eta sormenaren emaitza da. Hizkuntza askatasunaren eta aniztasunaren fruitu da. Hizkuntzak ez dira nahasteko eta elkarri ez ulertzeko Jainkoak ezarritako zigorrak. Alderantziz, gizakiak elkarrekin ulertzeko eta komunikatzeko sortuak dira hizkuntzak.

(2) OHARRA: Mikel Atxagak bere azken liburuan eta hainbat aldizkaritan idatzitako bizpahiru artikuluko jarri ditugu.

Hizkuntza bat galtzen denean aniztasunak puska bat galtzen du, hizkuntzen ortzadarrean argi bat, kolore bat, izar bat galtzen da. Euskara galtzen bada ez da euskaldunon lokarri, ezaugarri eta komunikabide bat bakarrik galduko, ziztu bizian murrizten ari diren aniztasuna eta edertasuna ere murriztuko eta txirotuko dira.

Horrelakorik nahi ez dugulako ospatzen dugu Euskararen Eguna. Horregatik biziberritu nahi dugu gure hizkuntza, guk galtzen badugu mundu osorako galduko baita.

Hori uste zuten gure aurreko askok ere. Eta hori uste zutelako egin zuten, gaur 50 urte, Euskararen Eguna mundu zabalean barreiatutako euskaldunek eta euskal jatorrikoek. Horregatik eskatu zioten Eusko Jaurlaritzari Euskararen Eguna ospa zedila urtero gaurko egunez. Izan ere, inor bada eta, Xabier da euskaldun unibetsala, euskaldun izatea galdu eta ukatu gabe, tokian-tokiko hizkuntzak ikasiz eta tokian-tokiko kulturara eta bizimodura moldatuz ibili baitzen munduan zehar.

Baina egun hau ez dadila egun bateko su festa huts izan. Hango eta hemego euskaldunon lokarriak sendotzeko eta euskararenganako maitasuna eta atxikimendua indartzeko balio dezala. Herri poza sentitzeko eta euskararen aldeko jarrera eta jokabideak indartzeko, alegia. Eguneroko bizitzan, lagunartean, familian, lantokian, kalean eta abarretan bizi gaitezen euskaraz, euskara bizi dadin gudan. Bakoitzak bere erara eta dezakeneraino. Euskara guztiona baita. Euskarak guztion beharra baitu.

Hizkuntza bakar baterako edo bakar batzuetarako dagoen joeraren kontra, bakoitzak bereari eusteko eskubidea eta eginkizuna ditu. Ingelesarekin, gaztelaniarekin, frantsesarekin eta abarrekin batera euskaldunok ere geureari eutsi behar diogu. Mendeak zehar gaur arte iraun duen hizkuntza zahar honek merezi du bizia, milurte berriaren ere. Gure esku da.